

TESTAMENTU IREKIRAKO EREDUAREN BIDEAN

Donostia, 1988-IV-29

Andres M.^a Urrutia Badiola

Jakina denez, pertsona bakoitzaren azken nahiari edo borondateari “testamentu” deitu zaio. Edukin honekin, Erromako zuzenbidetik hasita, “testamentu”-ak berebiziko papera izan du beti mundu juridikoan. Horregatik hain zuzen ere, gaur egun Estatu Espainoleko kode zibila aplikagarri duten euskal lurraldeetan testamentu edo azken nahi hori, notarioaren aurrean egiten denean bederen, euskaraz moldatzeko formulazio txiki bat proposatu nahi dugu oraingo honetan.

Espainiako kode zibilak hiru testamentu moeta bereizten ditu: *irekia*, hots, notario eta lekukoaren aurrean egiten dena, bertan testatzailearen nahia azaltzen delarik; *itxia*, alegia, kartazal itxi batetan, nahia agertzeke, notarioari ematen zaiona, azken honek bere protokoloan sar dezan eta azkenez, *olografoa*, hau da, norberaren kabuz eta eskuz, inoren aurrean egin behar ez dena, geroago prozedura judicial jakin baten bidez legezatzekoa.

Hemen halare, ohizkoen den testamentu *irekiaren* formulazioa eman nahi da eta xede hori betetzeko, lehen bait lehen, testamentu hori euskaraz egiteko eskubideaz ihardungo dugu, gerokoan, nola egin edo formulatze konkretuan aritzekotan.

Lehen puntuari dagokionez, arau orokorra zera litzateke: indarrean dagoen Araudi Notarialaren 149. artikulua:

“Art. 149. Cuando el documento se otorgue en territorio español en el que se hable lengua o dialecto peculiar del mismo y todos o alguno de los otorgantes sean naturales de aquel territorio sometidos a su derecho foral, el Notario, siempre que entienda suficientemente, declarándolo así, el idioma o dialecto de la región, a solicitud del interesado, redactará el instrumento público en idioma español y en la lengua o dialecto de que se trate, a doble columna, para que simultáneamente puedan leerse y apreciarse ambas redacciones, procurando que gráficamente se correspondan en cuanto sea posible, a cuyo efecto deberá tachar las líneas que por ello queden en blanco a la terminación de la columna que resulte menor.”

Badirudi beraz, lau baldintzak jartzen direla bi zutabetako testamentu honetarako (edozein dokumentu publikorako legez).

- 1) "Beste" hizkuntza horiek mintzatzen diren lurraldeetan egina izatea.
- 2) Notarioak euskara ulertzea.
- 3) Sinatzaileak lurralde horietakoak izan eta lurralde horien zuzenbide foralpean egotea.
- 4) Testamentua bi hizkuntzetan idaztea (erdaraz eta euskaraz kasurako).

Baldintza hauek, halabaina, gainditurik daude kode zibilak ezartzen duen 684. artikuluan:

"684. Para testar en lengua extranjera se requiere la presencia de dos intérpretes elegidos por el testador, que traduzcan su disposición al castellano. El testamento se deberá escribir en las dos lenguas."

Epaitegi Gorenaren arabera (1911-I-18) artikulua honen indarra eta aplikagarritasuna erbestekoei ez ezik, espainol guztiei ere hedatzen zaie eta ondorioz, edozein euskaldun espainolek bere testamentua euskaraz egiteko eskubidea dauka, Espainiako edozein lekutan edo ordezkapen diplomatikoetan, Araudi Notarialaren 149 artikulua (1), 2) eta 3) baldintzak betetzeko, eta bi itzultzaile laguntza soilaz, testamentua erdaraz eta euskaraz idazten delarik.

Eta hau guztiau, azken Konstituzio, Autonomi Estatutua eta Euskararen legeak (Komunitate Autonomokoak zein Nafarroakoak) ezarritako sistema linguistikoaren aurretik idatzita badago (Kode Zibila 1889. urtekoa da eta Araudi Notarialaren aipaturiko artikulua 1944koa) orain planteatzen zaigun arazoa zera da, bide edo ildo beretik jarraituta: euskara hutsezko testamentua egiteko ahalmena, hau da, bi zutabetako sistema gaineratuz, euskara soilsezko testamentua egiteko posibilitatea, hizkuntza honek esandako legezko testuen arabera duen egoera "ofizial"aren ondorioz.

Horretarako bi arau desberdin:

A) Euskal Herriko Komunitate Autonomoaren Legedia

Hemen biltzen dira Espainiako Konstituzioaz aparte Gernikako Autonomi Estatutuaren 6gn. artikulua eta euskara normaltzeko legearen 6gn. artikulua. Hizkuntza ofiziala deklaratu arren (euskara) ez batean eta ez bestean, ez da inolaz ere egiten dokumentu publikoei (testamentua barne) buruzko aipamen zuzenik. Interpretazio zabal batetik oratuta legislatzio hau (euskararen ofizialtasun osoa) eta gainera Espainol Estatuaren beste normalizazio linguistikorako legeak indarrean jarritako sistemekin gonbaratuz (arloan honetan gutxienez) badirudi Euskal Komunitate Autonomoaren edozein lurraldetan testamentua euskara hutsez egiteko esku-

bidea ba dagoela. Batez ere notarioa euskalduna bada. Bestela derrigorezkoa litzateke bi zutabetako formula, itzultzaile baten laguntzaz eta sinaduraz (praktikan egiten ari dena), notario erdaldunak ezin baitu euskarazko testuaren edukinaz federik eman.

Komunitate Autonomotik kanpo kode zibilaren 684. artikuluari esker, ez dago espainol euskaldunentzako beste erarik, bertan jarritakoa baizik, testamentua euskaraz egitea nahi izanez geroz.

B) Nafarroan

“Ley del vascuence” delakoan testamentua euskara soilaz egiteko eskubidea “zona vascofona”rako bakarrik onartzen da:

“Art. 12. Los documentos públicos deberán redactarse en la lengua oficial que el otorgante elija o, si hubiese más de un otorgante, en la que éstos acuerden.

Los fedatarios públicos deberán expedir en castellano o vascuence, según lo solicite el interesado, las copias o los testimonios y traducir cuando sea necesario matrices y documentos bajo su responsabilidad.

En todo caso, deberán expedir en castellano las copias que deban tener efecto fuera de la zona vascofona.”

Hortik at besterik ez da esaten lege horretan. Bestelakorik ez bada ere, lege horren egileek Nafarroako konpilazioak gai honi buruz dioena ahaztuxea dutela ematen du (ohar bedi testu hau 1973.urtean Francok berak onartu zuela):

“LEY 192.—*Testamentos en vascuence.*—Los navarros podrán testar en vascuence. Cuando el testamento se otorgare ante Notario y éste no conociere el vascuence, se precisará la intervención de dos intérpretes elegidos por el testador, que traduzcan su disposición al castellano; el testamento se escribirá en las dos lenguas, conforme se establece en el Reglamento Notarial.”

Honela nafarrek onartua dute Espainia eta Nafarroa osorako testamentua euskaraz egiteko eskubidea. Artikulu honetatik, bederen, euskara hutsezko testamentuari ez zaio bere posibilitate teorikoa ukatzen. Beraz, notarioa euskalduna bada, edozein nafarrek edukiko luke eskubidea bere testamentua euskara soilean egiteko. Eta eskubide honekin, Espainiako edozein lurralde zein ordezkapen diplomatikotan, lehen esan legez, aritzeko aukera ematen zaio. Dena dela egoera hori guztiz arraroa izanik, sarriago gertatuko den beste egoeran, hau da, notario edo fedatario erdaldunaren kasuan, kode zibilaren 684. artikularen bidetik ibiliko ginateke ere.

Jakingarria da, halabaina, nola kontrajartzen diren hemen eskubide linguistikoak arautzekotan, bi printzipioak: bata “personalitate”arena, Nafarroako konpilazioak onartuta, testamentua euskaraz egiterakoan eta bes-

tea "territorialitatea"rena, "Ley del vascuence" delakoak ezarrita, esparru itxi eta mugatu baterako. Beraz, gure ustez, Nafarroaren eremuan euskara hutsezko testamentua egiteko aukera, notari euskalduna ez den kasuetan, "zona vascofona"ra hedatzen da bakarrik. Bestelako interpretaziorako argudioa izan arren (horra hor konpilazioa) ez dugu uste praktikan posible denik.

Hortik kanpo, konpilazioaren bidez, bi hizkuntzetan idatzita, nafarrek badute beren testamentua euskaraz egiteko ahalmen osoa.

Honetan ere azken boladako legislazio linguistikoa nolabait osatu beharra dago, Euskal komunitate Autonomoan, dokumentu publikoaren errejimena zehazteko eta Nafarroan eskubide linguistikoak erresuma zahar horren lurralde osora zabaltzeko.

Bitartean lagungarri izan dadin uste soilean, bego hemen euskara hutsezko "testamentu ireki" baten formulaziorako proposamena, geroko errealitate batzuren aurrepausu apala izan nahi duena. Horretarako berton ematen dugun eredia, kasurik arruntenari dagokiona da, alegia, senar-emazteenari, seme bat izanik, eta inolako legatu, xedapen edo disposizio berezirik gabekoa. Azaltzen den testamentua senarrarena da, emaztearena guztiz berdina baita beharrezkoak diren izen aldaketak egin ostean.

BOSTEHUN BERROGEI TA HAMAIKA-GARREN ZENBAKIA

Ondarroan, nire egoitzan, 1984. urteko Abenduaren hamabian, arratsaldeko ordubiak direla

«Nire, JOSE MARIA ARROITA JAUREGUI, Bilboko Notari kolegio txit prestuko eskribau honen aurrean,»

AGERTZEN DA:

JUAN ERRATI BENGEOA JAUNA, adin nagusikoa, ezkondua, merkataria, Ondarroan jaioa, 1945.eko Martxoaren 19 ean, bertoko biztanlea, beronen egoitza Artabide Kalea 46.ean dagoela, eta beronen Nortasun Agiri Nazionala 12.345.678 dela

Badu, ene aburuz, testamentua egiteko behar hainako gaitasuna eta beraren azken nahia adierazten du jarraiko **KLAUSULEN** arabera

LEHENENGOA: Jose eta Juanaren semea dela eta Petra Sukia Velez anderearekin ezkondurik dagoela, ezkontza honetatik seme bat izanik, Asier Errati Sukia izenekoa.

BIGARRENA: Lehen esandako emazteari beraren heredentzia osoaren gozamen orokorra eta bitalizioa legatzen dio, fidantza eta inbentario-tik errelebatuz, beronen kabuz legatu horren edukitza eskuratzeko ahalmena ematen diola. Beraren semeari, beharrezko oinordea denez, gozamen hori guztiz errespetatzeko eskaria egiten dio. Eta inpugnatzeko kaso bakarrerako beronen emazteari, jabetasun osoz, beronen heredentziaren dispozizio askearen herena legatzen dio, legezko gozamenez aparte . . .

HIRUGARRENA: Oinordeko unibertsaia, beraren eskubide, ondasun eta akzio guztietan, esandako Asier Errati Sukia semea izendatzen du. Petra Sukia Velez anderearekin duen eskontzatik izan litzakeen gainerantzeko seme-alabak ere oinordekook izendatzen ditu, parte berdinetan

Honela esaten eta otorgatzen du testatzaileak, ene eta lekuko instrumentalaren aurrean, azken hauek adin nagusikoak, bertoko bizilagunak eta egokiak izanik, beraien adierazpenetatik ateratzen denez, Jose Gogaskoa Ruiz, Pedro Lexaje Ajangiz eta Maria Lopez Kapela jaun-andereak . . .

Lekuko hauek testatzailea ikusi, ulertu eta ezagutzen dutela eta beraien eritziz, testamentua egiteko behar haina gaitasunik duela baieztatzen dute

Eta neuk, eskribau honek, testamentu hau ahotsez irakurtzen dut, testatzailearen eta lekukoen aurrean, lehenak irakurtzeko duen eskubidea, neronek ohartu eta berak errenuntziatu ondoren; eta testatzaileak testamentu hau bere nahiarekin bat datorrela baieztatzen du, lekukoekin batera sinatuz

Araudi Notarialaren xedapenak betetzeko, eta Ondarroan, ene egotzan euskaraz hitz egiten delako, eta bertan jaioa delako agertua, honen eskariz, euskaraz egiten da testamentu hau; agertua euskalduna izanik eta neuk ere, euskaraz jakin eta ulertzen dudala

Eta neuk eskribau honek, testatzailea ezagutzeaz, legezko solemnitate guztiak ekintza honekin batera betetzeaz eta orokorki, instrumentu publiko honetan, hiru orrialdeotan, zenbakiak 1027261, 1027263 eta 1027268, A mota, ezarrita dagoen oroz fedea ematen dut.